

PARTE-HARTZE POLITIKOARI BURUZKO EZTABAIDA

Eztabaida bi zati handitan egituratzea planteatzen dugu:

1. MUGIMENDU FEMINISTAREN PARTE-HARTZEA ERAKUNDEETAN.
 2. MUGIMENDU FEMINISTAK BESTE GIZARTE-MUGIMENDU, ERAKUNDE ETA ELKARTE BATZUEKIN DITUEN LOTURAK ETA KOORDINAZIOA.
-

Mugimendu feministak, hastapenetik, politika arloa, delako jarduera politikoa, ezbaian jarri eta birdefinitu egiten du. Hala, 60-70eko hamarkadako muturreko feminismoak "pertsonala politikoa da" aldarrikatzen zuenean, politikak boterea zegoeneko arlo guztiekin zerikusia zuela ari zen baieztatzen. Hala ere, "politikoaz" hitz egitean, ekintza kolektiboak erabakitzen direnoko instantzia batzuetan pentsatzeko joera dugu, edota herritarren bizitza komunean eragina duten ekintzak erabakitzen direnokoetan; eta horiek gure bizikidetzaren erregulatzen dute, ikusmolde ideologiko desberdinetan oinarrituz, eta gizarteari orokorrean eta pertsonari partikularrean komeni zaiena erabakitzen dute, justiziaren aldaera desberdinetan, bai eta kontrajarritako interesetan ere. Ikuspuntu horretatik, politika ez da soilik demokrazian erakundearen markoan gertatzen den jarduera, gizarte-mugimenduen jarduera ere bada politika. Gizarte-mugimendu horiek, alderdi politikoen kapitulazioekin desengainatuta, horiengandik distantzia batera egoten ahalegindu dira, eta botere kontuak alde batera uzten. Gure ustez, gizarte-mugimenduek ezin dute eta ez dute ontzat eman behar politika "teknikari" eta "profesionalen" esku uztea. Politika sektore zapalduen baliabide izan behar du, beronen aldarrikapenen eztabaidagune, eta ideia hori berreskuratu behar dugu. Mugimendu feministak (beste mugimendu batzuek bezala) bere estrategia, kanpaina, eztabaida, lotura eta abarrekin, etengabe planteatzen du gizartean menderatzaile diren ikusmoldeen gaineko eztabaida eta emakumeen eskubideen defentsan eta lorpenean lan egiten du.

Azken urteetan lortutakoaren balantzea egiten badugu, ezin dugu ahaztu zenbat aldaeratan egokitu den mugimendu feminista errealitate berri batera. Errealitate berri horretan, batez ere, erakundeetako feminismoa,

lege mailako aurrerapena eta gizartean eragiten duen eta muga lausoak dituen feminismoaren agerpena ditugu; azken honek postulatu feministak bere egin ditu, eta, gasaren moduan, hedatu eta azalera handia hartzearekin batera, dentsitatea (intentsitatea eta indarra) galtzen du.

Nola jokatu behar den, zein estrategia erabili behar diren mugimendu feminista autonomotik politika egiten jarraitzeko, eta erakundeekin eta gainerako gizarte mugimendu eta organizazioekin izan beharreko harremanak lantzen dituen eztabaida sustraiko eztabaida da eta hausnarketa bat merezi duela uste dugu. Gure ustez, gaur, "generoa" gaitzat hartzen zuten instituzioak sortu zirenean pentsatzen genuen ez bezala, gizarte demokratiko batean bazterkeriaren aurkako legedia betetzen dela zaindu eta bermatzen duten mekanismoak (eta behar izanez gero erakunde berezituak) egon behar dira. Iritzi hobea edo okerragoa izan dezakegu erakundeek halako elkarteei zuzendutako diruarekin egiten dutenari buruz, baina ez dugu uste hauen existentzia ezbaian jar daitekeenik bazterkeriaren mekanismoek lanean jarraitzen duten bitartean. Gure aburuz, beraz, azken urteotan hain entzuna den zuzentasun politikoaren fartsa salatzeak izan beharko luke gure zereginetako bat.

Mugimendu Feminista eroso moldatu zen baliabideak eskatzea eta bazterkeria salatzea funtsezkoa zen garaian; behin horietako baliabidetariko asko lortuta, baliabide horiek ondo erabil daitezten exijitzeko, beste batzuetan abian jartzea, guztien aurrekontu-zuzkidura, nahitaez feministak izan behar duten irizpideen araberrako aldizkako ebaluaketa eta beste hainbat arlo eskatzeko indarrak biltzeko gaitasuna izan beharko genuke.

Baina, egia esan, feminismo antolatua *impasse* batean dago eta antolamenduzko krisialdian: emakumeek ez diote jadanik beharrezko irizten antolamendu patriarkalaren aurka era antolatuan egiteari, bazterkeria ez delako lehen adinakoa. Gure ikuspegitik beste arlo batzuetan lan egiteko aukerak eta ahalmenak aztertu beharko genituzke baina, batez ere, azken urteotan Mugimendu Feministan zer gertatu den aztertu behar dugu, oraindik ere beharrezkoa baita, lorpenak gora-behera. Hori da, hain zuzen, feministak hauteskundeetara hautagaitzak aurkeztera bultzatu dituen

arrazoia, edo Emakumeen Kontseiluak eta halako herritarren partaidetza-organoak sustatu ditugunok oinarrian izan dugun ideia.

Hala, Bizkaiko Emakumeen Asanbladan, 2 puntu berezitu baina, era berean, erlazionatuta daudenen gainean mugimendu feministak egin beharreko eztabaidaren inguruan planteatu nahi dugu txosten hau:

1. Alde batetik, hausnarketa kolektiboa proposatzen dugu mugimendu feministak erakundeetan duen partaidetzari buruz, tokiko kontseiluetako esperientzian oinarrituz.
2. Beste alde batetik, mugimendu feministak beste gizarte-mugimendu, erakunde eta elkarteekin duen lotura eta koordinazioa birpentsatu, bai eta Mugimendu Feminista nortzuk eratzen dugun ere.

1. MUGIMENDU FEMINISTAK ERAKUNDEETAN DUEN PARTAIDETZA: TOKIKO KONTSEILUAK

Ukaezina da mugimendu feministak planteatutako proposamen askok gizartean sustraitzea lortu dutela, eta estatu eta gobernuek bereganatu egin dituztela. Azken urteotan, politika feministen instituzionalizazio prozesu bat bizi izan dugula, eta hori aurrerapen ukaezina da; baina, aldi berean, eztabaidaren erdigunean jartzen du agenda feministen edukiek gaur egunean zeintzuk izan behar duten erabakitzea.

Gainera, instituzionalizazio prozesua ez da soilik islatzen estatuko instituzioek agenda feministaren hainbat puntu bere egin dituztelako horretan; izan ere, horretaz gain, instituzioek oso ezaugarri zehatzak dituzten emakume elkarteratzea sortu edo sustatzen dute: ez da batere politizatua ez eta aldarrikatzailea ere, eta instituzioaren eskutik egin du bidea, eta eskerroneko agertzen zaio instituzioari, lortutakoa lortzeko eskubiderik ez zuelakoan. Instituzioek eredu horretan oinarrituta bultzatu du emakumezkoen elkarteratzea, apropos, eta feminista ez diren

emakumeei eman die protagonismoa, eta elkarrizketa aitortu ere bai, feministen kaltetan. Espazio horietan egoteari utzi ezin geniolakoan, batzuk estrategia politiko batean sartu gara, eta orain horren gaineko azalpenak eman eta, batez ere, horren gainean eztabaidatu nahiko genuke.

Izan ere, mugimendu feministen erakundeetan prozesu honen gainean egin ditugun balorazioak ez dira batere ahobatezkoak, ezta elkarte bakoitzaren barruan ere. Bizkaiko Emakumeen Asanbladan ere iritzi desberdinak ditugu honen gainean.

Dena dela, mugimendu feministak instituzioan duen partaidetza politikoan 2 maila bereiztea komeniko litzateke:

- A. Alde batetik, hautagai zerrendak aurkeztea: hala egiten dute Plazandreak, Alderdi Feminista eta beste batzuek.
- B. Beste alde batetik, herritarren partaidetza organoak deitutakoetan parte-hartzea; eta horien kasu paradigmaticoak dira sektore kontseiluak, udal nahiz erkidego mailakoak.

Orain arte, Bizkaiko Emakume Asanbladan baztertu egin dugu hautagai zerrendak ateratzea. Egia esan, planteatu ere ez dugu egin.

Hala ere, Bilboko BEAn, mugimendu feministaren beste erakunde batzuekin eta sentsibilitate feminista desberdina duten beste emakume elkarte askorekin batera, Berdintasunaren aldeko Bilboko Emakumeen Udal Kontseilua jarri genuen abian orain bi urte inguru. Abentura honetan sartzean, modu positiboan ikusi genuen, eta aukera handiak egon zitezkeela, Bilbon hainbeste talde feminista egotea, Ermua, Basauri eta halako herri txikiagoetako kontseiluetan gertatzen ez den bezala, hauetan ez baitago talde feminista bat besterik; edo Donostian, non, hiri handiagoa izan arren, kontseiluaren parte diren talde feminista gutxi dagoen.

Udal Kontseiluak kide anitzeko organoak dira, izaera aholkulari eta informatzailea dute, herritarren –eta kasu honetan emakumeen- partaidetza demokratikoa bermatzeko asmoz sortzen dira, eta alde batetik erakundeek

eta bestetik elkarteek osatzen dute Tokiko Kontseiluetan; Autonomikoetan, berriz, elkarteek besterik ez.

Guk indar militante dezente inbertitu ditugu Bilboko Kontseiluan, eta bertan izan dugun esperientziaren ondorioz, argi-iluneko balorazioa egin behar dugu, alderdi onak eta txarrak izan dituela iritzi baitiogu.

Bilboko Kontseiluan parte hartzera animatu gintuzten aukeren artean, honako hauek aipatuko ditugu:

- Kontseilua bidea izan daiteke politika egiteko.
- Udalak onartutako esparrua da, eta horrek gizarte mailan onartua izatera eramaten du.
- Beste elkarte batzuekin indarrak batzeko aukera ematen du ekimenak planteatzeko.
- Udalerriko emakumeen mugimendua eta mugimendu feminista ikusarazten du.
- Aldarrikapen feministen bozgorailu gisa erabil daiteke.
- Mugimendu feministari aukera ematen dio emakumeekin eta berdintasunarekin lotutako udal politika publikoetan eragina izateko.
- Zorrozki Mugimendu Feminista klasikoaren partaide ez diren emakume taldeekin loturak ezartzeko balio du.

Astiro begiratuta, potentzialtasunez hitz egiten ari gara. Eta horietako batzuk bete egin dira ibilbide honetan, kasuak kasu.

Hala ere, garbi atera dugu oztopoak ere aurkitu ditugula. Bilboko Kontseiluan izan dugun esperientziari dagokionez, honakoak aipa ditzakegu:

- Udaleko teknikari nahiz politikoekin desadostasun handia, Kontseiluaren sorkuntzari buruz eta orokorrean partaidetza politikoari buruz. Espero genezakeen zerbait da, eta ez da ezer gertatzen erakundeetako aldeak (teknikoa nahiz politikoa) eta elkarteek ikusmolde politiko desberdinak izateagatik (ez eta elkarten artean desberdintasunak egoteagatik ere); erakundeen aldeak elkarten aurrean nagusitasunezko jarrera hartzen duenean sortzen da arazoa,

eta elkartearen ideiak ikusezin bihurtu edo noranzkoa aldarazi nahi dienean; edo, Bilbon gertatu bezala, behin eta berriz saileko apendizet bat bezala agerrarazi nahi duenean.

- Zaila izan da hurbileneko elkarte batzuekin loturak sortzea ere, Kontseiluarekiko konpromiso ezak eraginda, neurri batean; baina, era berean, ez dugulako nahikoa denbora eman lotura eta estrategiak ezartzen, eta hori, orain gaudenetik, akats bat izan dela pentsatzen dugu.
- Kontseiluko kide izateko irizpideak jarraituta, guregandik oso hurbil ez dauden eta ideologia desberdinak dituzten elkarteak sartu ahal dira. Gainera, Kontseiluko kide diren elkarte askok ez dakite nola funtzionatu, zer egin; ez dute ibilbide politikoa batere landu.
- Batzuetan, alde politikoek Kontseiluan euren siglak errentagarri egiteari lehentasuna ematen ziotela hauteman dugu.
- Arazoetako batzuen aurrean, erakundearen aldeko jokoak batzuei garrantzirik ez ematearen alde egin dugu, eta, aurrera egiteko, gehiegitan eman dugu amore, eta ez dugu Kontseilu barrena kritikatu, ez eta publikoki kritikatu beharko genituzkeen jarrera eta jokabideak ere.

Dena dela, Kontseiluko elkarten arteko loturak sortzeko zailtasunei, eta erakundearen (Saila) aldearekiko desadostasunari dagokienez, ez dugu uste berez kontu larria denik, beti-ere desberdintasunak kontrastatu eta eztabaidatzen badira. Bat ez etortzea eta desadostasuna ere badira politikaren zati bat. Baina batzuetan, gure aburuz, lehentasun handiegia eman zaio, batez ere Sailak, konplizitate eta adostasun beharrari; eta hori ondo egon daiteke... adostasuna baldin badago, baina ez diogu beldurrik izan behar ezadostasunari eta eztabaida politikoari, kontziente izanda bestea konbentzitu dezakegula (edo geu konbentzitu gaitzaketela) edo ez. Eztabaida bat galdu edo irabazi egiten da, baina ia garrantzitsuagoa iruditzen zaigu eztabaida egitea, horrek ematen baitu bidea gure proposamenen aldeko argudioak landu eta gure ikusmoldeak birpentsatzeko.

Hausnarketa hau eta aurreko guztiaren gaineko eztabaida planteatzen dugu, alde batetik, asko izan direlako Kontseiluan inbertitutako ahaleginak eta luzea bidea, eta horrek behartu egiten gaitu urte batzuen buruan balorazio bat egitera eta etorkizunean nola jarraitu behar dugun erabakitzerara; eta bestetik, eztabaida horrek eragina izan dezakeelako etorkizuneko Autonomia Kontseilua abian jartzean, horretan ere sartuta baikaude Jardunaldi Feminista hauetan gabiltzan hainbat erakunde.

Jakina denez, Eusko Legebiltzarrean onesteko prozesuan dago Autonomi Kontseilua sortzeko amaierako lege proiektua; Emakundek legealdi honen amaieran prest eta indarrean egotea espero du. Gure ustez, baloratu egin behar da parte hartuko dugun ala ez, honako hau kontuan hartuta:

- Horri eman beharko diogun denbora eta ahalegina: txandakako bilerak hiru euskal hiriburutan, lan taldeak, Batzar Nagusia...
- Gu bezalako beste batzuekin elkartzeko aukera, zerrenda itxiak aurkeztu eta baterako proposamenak indar handiagoz egiteko.
- Etorkizuneko Autonomi Kontseiluaren araudian elkarteen mugimenduaren partaidetza aurreikusten da, erakundeen interferentziarik gabe.
- Aukerako beste espazio gisa planteatzea, baina mugimendu feministaren jarduerarako ohiko espazioak, koordinazioa eta batasunari lehentasuna emateari utzi gabe.

Baina, Autonomi Kontseiluan lan egitea erabakitzen badugu, udal kontseiluetako eskarmentutik ikasi beharko genukeela uste dugu eta, han lanean hasi aurretik, beste erakunde feminista batzuekin loturak egin beharko genituzke. Horrek, hasteko, lana eskatzen du, bilera gehiago, baina, ondorioz, eragingarritasun eta errentagarritasun politiko handiagoa.

Aurreko puntuetan aipatutako gauza horiek guztiak kontuan hartuta, askotan denbora eta ahalegin asko inbertitu eta gauza gutxi lortu izanaren

sentipena dugu. Hori da, izan ere, Bilboko Kontseiluan lanean daramagun denboraren gainean egiten dugun balorazioa. Kontuan izan behar dugu, bestalde, BEAko kide guztiek ez ziotela egoki eta komenigarri irizten esparru horretan indar militanteak inbertitzeari. Kide askok behin eta berriz aipatzen zituzten halako apustuen arriskuak (kooptazioa, instituzioa legitimazioa ematea...). Baina horri buruz izan genituen eztabaidetan, Kontseilua sustatzea Mugimendu Feministarentzako baliozko estrategia bat izan zitekeela pentsatu genuen, eta frogatu egin behar zela, gure elkarte militantzia maila baxuan zegoela ere kontuan hartuta. Eta hala egin genuen. Gaurko egunean, "balantzea" egin eta aurrera begira egin beharrekoa aztertu behar da, halako apustua egitea komeni den ala ez erabakitzeko.

Horrek eragin digun higadura eta lorpen eskasa batuta, eta asanbladak egin berri dituen kanpainen (laikotasunaren aldekoa kasu) emaitzekin alderatuta, ikusiko dugu askoz ere ahalegin txikiagoaz ikusgarritasun eta presentzia handiagoa lortu dugula komunikabide eta iritzi publikoan, pertsona kopurua handi bat inplikatzeko lortzeaz gain.

Aipatu egin behar dugu, bestalde, Kontseiluak sustatutako etxez etxeko langileen grebari komunikabideek emandako babesak; horrek oso arrakasta handia izan zuela irizten diogu¹. Gainera, sektoreko langileek babes honek negoziatzeko garaian izan duen garrantzia handia izan dela jakinarazi digute.

Dena dela, ez dugu islatu nahi balorazio hau hain txarra denik, eta halako esparruak utzi egin behar direnik; baina, hasiera batean, ez dugu ezer baztertu behar, ez eta alde egitea ere. Baina erakundeei eta estatuari interpelatu egin nahi diegu aukera berdintasunerako politika publikoak abian jartzean eta erasoaldi neoliberal izugarriaren aurrean arlo publikoaren defentsan duten erantzukizunari buruz, eta antolatutako emakumeen eta instituzioekiko elkarrizketaren aintzatespena exijitu behar diegu. Gizarteko beste sektore batzuek –hala sindikatu nola pertsona nagusien elkarte edo

¹ Bizkaiko Emakumeen Asanbladak Bilboko Kontseiluari eginiko proposamena publikoki agertu zen (prentsara bidalitako ohar eta iritzi artikulua bidez): sektoreko langileen aldarrikapenak babesten ziren eta Udalak gatazka honetan zuen jarrera kritikatzeko.

GKE- instituzioekin duten elkarrizketa maila exijitzen dugu. Horiek dira tokiko kontseiluetan, etorkizuneko Autonomi Kontseiluan eta halako herritarren partaidetza organoetan parte hartzen jarraitu behar dugula iriztera bultzatzen gaituzten arrazoietako batzuk.

2. MUGIMENDU FEMINISTAK BESTE GIZARTE-MUGIMENDU, ERAKUNDE ETA ELKARTEEKIN DUEN LOTURA ETA KOORDINAZIOA.

Hasieran genioen bezala, txostena bi gai handitan banatu dugu, baina lotura ere badute euren artean.

Zati honetan, 14 urte geroago, mugimendu feministak beste gizarte mugimendu eta erakundeekin izandako harremanen gainean kezkatzen gaituzten kontu batzuei buruz hausnartu nahi dugu, baina bai eta mugimendu feministak gaur egun duen eraketari berari buruz ere. Urte zail batzuk –gizarte mugimenduak ahuldu direnekoa- igarota, mugimendu feministak kalean berriro ere bere presentzia suspertzea eta sareak egituratzea aztertu beharreko erronka da, orain gaudeneko errealitate berriak kontuan hartuta.

Txosten hau egin duen taldean eztabaidatu ostean, eta deskribapen tokikoegia egin eta Bilbon dugun egoeran gehiegi erreparatzeko arriskupean, adibide zehatzak erabiliko ditugu adierazgarriak direlakoan; hala ere, egoeraren balorazio politikoa egiten saiatuko gara, beste errealitate batzuekin konparatu ahal izateko. Bestalde, jardunaldi hauetan dauden beste erakundeekin ere eztabaidatzeko asmo berezia dugu.

Mugimendu Feministaren eraketari dagokionez, urte hauetan aldaketa batzuk gertatu dira, lehen aipatu bezala. Feminismo instituzionala agertu da, eta 80ko hamarkadan eta 90eko zati batean hain aktiboa izan zen mugimendu feministaren ondoriozko, edo paraleloan gertatutako, “desmobilizazioa”, teoria politikoa sortzeari eta gizarte mobilizazioa

eragiteko gaitasunari dagokionez. Horrek eta feminismoaren lorpen handiek eta muga lausoak dituen feminismoaren agerpenak arazo batzuek planteatzen dituen panorama bat erakusten digu.

Joan gaitezen zatika: alde batetik, **Martxoaren 8 eta Azaroaren 25eko koordinadora feministen** eraketa aztertuko dugu; horiek "gorde beharreko jaiak" dira, eta horiek antolatzeko, koordinadora iraunkorrek funtzionatzen jarraitzen dute. Hemen Mugimendu Feministaren partaide gisa aintzatesten diren eta aintzatesten zaien elkarteak biltzen dira.

Eta, beste alde batetik, kanpaina zehatzak sustatzeko plataformak ditugu: Mundu Martxa, Berdintasun Legearen gaineko eztabaidarako Plataforma edo Mendekotasuna Artatzeko Sistema Publiko baten aldeko Plataforma, besteak beste.

Bilbon, gaurko egunean, bi koordinadora feminista daude: Tribuna Feminista, emakume elkarteek ez bestek eratutakoa, eta talde feminista autonomoek eta talde mistoek osatutako koordinadora. Azken honetan dago BEA, eta honi buruz hitz egingo dugu. Esan beharra dago zatiketa egin eta bi koordinadora hauek osatzearen arrazoia zein izan zen: Lanbroa ez zegoen talde mistoaren partaidetzarekin ados. Guk, geure aldetik, ez geunden iritzi horrekin bat egiten.

Gure taldea sartuta dagoeneko koordinadora osatzen dutenak dira: sindikatuen emakumeen arloak, feminismo instituzionalagotik hurbildu diren elkarteak (elkarte mistoetako emakumeen arloak, esaterako), Mundu Martxatik hurbildu direnak eta, azkenik, talde feminista autonomoak.

Oso koordinadora plurala eta heterogeneoa da, zalantzarik gabe; deialdiak egiteko eta gizartea mobilizatzeko gaitasun handia duten elkarteek osatuta, abian jartzen ditugun kanpainetan askotan, emakume (eta gizonezko) asko aktibatzeke ahalmen handikoa. Baina, ikusi egin behar da hau gertatzen den, eta zein oztopo aurkitzen dugun; horretarako, adibide batzuk erabiliko ditugu.

Lehenengo adibideak Mendekotasuna artatzeko Sistema Publikoaren aldeko Plataformarekin dauka zerikusia, zein azkenean ez zen *plataforma feminista* deitu sindikatu baten ezadostasunagatik eta bere burua feminista gisa aintzatesterik ez zuelako nahi. Gure galdera honakoa da: gauza bera gertatuko al litzateke plataforma ekologista edo internazionalista bat izan balitza, adibidez? Dena dela, nahikoa kontraesana da sindikatu horrek berak aspaldidanik parte hartzen duela Maiatzaren 8ko edo Azaroaren 25eko koordinadora feministan, eta data horietan ez zaiela axola feministatzat hartzea, bai, baina, urtearen gainerako egunetan.

BEAk beti defendatu izan du sindikatuetakoa emakumeen arloek koordinadoretan parte hartzea, eta hauek ere Mugimendu Feministaren zati gisa hartzea, eskubide osoz. Eta hainbat argudio jartzen genituen mahaiaren gainean: horien eraketa bera, mugimenduaren erabakia izan zen, eta gurea ere bai haren zati izateagatik, emakume militanteek sindikatuetan indarrak inbertitu zituzten emakumeen arloak sustatu eta esparru horretan lan egiteko. Hori gertatu zen, bereziki, STEE-EILASen, eta Mugimenduaren garai gorenetan estrategia ona izan zen.

Badakigu garai txarrak direla iraultzetarako eta gizarte mugimenduetarako. Mugimendu feminista ere, gizarte mobilizazioari dagokionez, ahul samar ibili da azken urteotan. Baina gaurko egunean sindikatuek kanpaina feministetan erabilgarri izan dakigukeen informazioa emateko ahalegintxo bat egin beharko luketela uste dugu. Batzuetan, desadostasun politikoa oso handia da emakumeen eskubideen defentsari dagokionez, eta hala erakusten du sindikatu baten jarrerak Etxe Langileak Gizarte Segurantzaren Erregimenean sartzeko negoziaketan; bitxia da, kontuan hartuta sindikatu horrek Maiatzaren 8ko eta Azaroaren 25eko koordinadora feministetan parte hartzen duela.

Gure ustez, sindikatuek erakundeek instituzioetatik jasotzen duten aintzateste eta elkarrizketa maila gurea baino askoz handiagoa da eta benetan garrantzitsuak diren gaiak beste espazio batzuetan negoziatu eta erabakitzen dituzte. Batzuetan ez du ematen feminismoak onurarik jasotzen

duenik hain elkarrizketa gaitasun handia duten erakunde hauek mugimenduaren parte izatetik.

Bestalde, antolatzen diren mobilizazioetan ez dute euren presentzia ere bermatzen. Orokorrean, emakume antolatuak eta talde feministetako emakumeak egoten gara, batez ere; eta, erabakiak hartzeko garaian eta publikoki agertzean, berriz, protagonismo bera dugu denok.

Beste alde batetik, gure iritziz, Maiatzaren 8ko eta Azaroaren 25eko kanpainak antolatzen direneko koordinadoretan, zenbaitetan, asko jaitsi da gure diskurtsoa. Gainera, gure ustetan, emakumeen interes estrategikoak ez dira beti lehentasun gisa jartzen.

Une honetan, eta instituzioen dinamismo handiaz, funtsezkoa dela pentsatzen dugu gu bereiztea eta muturreko jarrera bat erakustea, hainbeste famatutako legeak bete daitezen eskatzea eta "politikoki zuzenak" diren hitzaldiei mozorroa kentzea, asko hitz egin, gutxi esan eta gutxiago egiten baitute; eta erantzun hori espazio horietan eman behar da. Guretzat, horretarako ere indartu egin behar da mugimendu feminista, eta bere autonomiari eutsi behar dio; bestalde, berdintasun politikoei dagokienez, solaskide nagusi gisa berariazko aintzatestea exijitu behar du.

Koordinadoren parte diren gainerako taldeei (goian aipatu ditugu) eta Mugimendu Feministen parte izateko duten interesari dagokionez, beharrezko irizten diogu irizpide batzuk finkatzeari, hausnarketarik gabe, berez, eman diren dinamiketatik haratago joateko, horiek izan baitaitezke azken urteotan bizi izan dugun ahuldadearen eta mobilizaziorako gaitasun eskasaren eragileak. Eztabaidatzea proposatzen dugu, mobilizatzeko gaitasuna eta emakumeen bazterkeriari erantzuna emanez geure diskurtsoarekin esfera politikoan gure presentzia bermatzeko zer egin nahiko genukeen eta zer komeniko litzatekeen erabakitzeko.

Gaurko egunean, eta muga lausoak dituen feminismoaren eta feminismo instituzionalaren eraginari esker, diru-laguntzak lortu nahi dituen edozein erakundek "genero ikuspegia" sartu behar du bere proiektuetan,

antolamenduan, kudeaketa ereduan, kanpoko jakinarazpenetan.... Ohikoa da sektore, erakunde eta enpresa guztietan berdintasun programak egotea, eta guri ondo iruditzen zaigu. Sinesten dutelako egingo dute batzuek, exijitzen dietelako besteek, edo horrekin saldu egiten duelako; baina lana ondo egiteak, teknikariak edukitzeak, edo emakume liberatuak, edo boluntario oso feministak, edo genero talde bat edukitzeak ez du, gure aburuz, mugimendu feministaren parte den talde bat eratzen automatikoki, talde feminista autonomoek duten protagonismo berbera duena. Genero gaiak kontuan izan eta horren inguruan lan egitea arrunta da, eta hori eskatu behar zaio, edozein erakunde progresistari, ezkerrekoari... baina horrek ez du bihurtzen Mugimendu Feministaren subjektu politiko; bertako emakumeak izango dira talde feministetan sartzen badira, eta oso ondo hartuko dira bertan; baina ez erakundea bera. Izan ere, hori gertatzen zaio, eta ez kasualitatez, aintzatetsia ez den mugimendu bati.

Gure ustez, gizarte mugimenduak –alderdi politiko, beste erakunde edo instituzioak ez bezala- pluralak dira, baina horrek ez du esan nahi mundu guztia, genero unitate bat edo halakoren bat izate hutsagatik, ekintzetarako deia egin eta horiek antolatzen dituen koordinadora feminista baten parte izan daitekeenik.

Garrantzitsua litzateke, bestalde, feminismoaren inguruan dauden sektoreekin loturak finkatzea, GGKEekin adibidez. Interesgarria litzateke ezkerreko GGKEak MFren kanpainen inplikatzeko, berrietan normalean emakume liberatuek eta boluntarioek lan egiten baitute, askotan gazteak, feministak, eta askotan euren sektoreek hegoaldeko mugimendu feministekin harreman estuak izan ohi dituztenak. Erakunde hauek zubiak eraikitzen lagundu dezakete, eztabaida eta trukaketa espazioak sortzen, edo kanpainak babesten euren proiektuen markoan. Ildo honetan, eta GGKEen Koordinadoran genero talde bat dagoela kontuan hartuta, gure ustez ona litzateke talde hau kanpaina edo plataformatan sartzea eta ez hainbeste GGKE osoa, bere aldetik.

Beste alde batetik, **mugimendu feministak beste gizarte-mugimendu eta erakundeekin dituen loturen** gainean eztabaidatzea ere proposatzen

genuen. Alde honetatik, antzinako kontuak aztertu beharko lirateke, gizarte mugimenduen arteko loturak, esaterako, eta berrikuntza batzuk sartu beharko lirateke, gizonezko antipatriarkal antolatuekiko harremana, esaterako.

Gizonezkoen gaiak hausnarketa egitea merezi du, gero eta talde gehiago eta bariatuagoak sortzen ari direlako, eta, orokorrean, adostasuna dagoelako kontu batean: gizonezkoek sexuen arteko ezberdintasunen aurkako jarrera hartu behar dute, argi eta garbi, bai eta, nahiz eta ez soilik, indarkeria matxistaren aurkako jarrera ere. Sinbolikoaren arloan, funtsezkoa da gizonezkoak eurak izatea euren generokide diren gizonengana iristea sexismoaren aurkako kondena garbiaz eta gai hauetan tolerantzia zero erakutsiz. Eta beharrezkoa da hauek patriarkatuak eman dien gizonezko eredu eta rola deseraikitzen inplikatzeari. Baina, Gasteizko koordinakundean gertatu bezala, gizonezko antipatriarkal antolatuen talde bat Mugimendu Feminista baten koordinazio eta ekintza unitatearen parte izan daitekeen ala ez pentsatzen hasita, zalantza batzuk ditugu.

Badakigu gizonezkoek, genero ikaspenetik (batzuetan desikasi ere egin dute), zaletasun eta erraztasun handiegia dutela lider eta protagonista bihurtzeko; beraz, ikusi egin beharko litzateke loturak nola planteatzen diren, eta eztabaidak aztertu beharko lirateke talde hauen analisia eta estrategia partekatzen dugun ala ez jakiteko.

Une honetan, bi gizonezko-talde mota ditugu, *grosso modo*: batzuk gizon izateagatik gizarte patriarkalak ematen dizkien pribilegioei uko egitea defendatzen dutenak dira; beste batzuk, berriz, interesatuago daude gizarte patriarkalak eurak ere nola zapaltzen dituen aztertzearekin. Azken hauekin arazo gehiago ikusten ditugu loturak ezartzeko garaian eta, hasiera batean, gutxiago interesatzen zaizkigu. Gure ustez, desberdintasunaren arazoa "psikologizatzer" gehiago jotzen dute ikuspegi politiko batetik aztertzer baina. Egia esan, emakumeen mendekotasunak eta desberdintasunak baditu beregan alderdi psikologikoak; izan ere, badakigu pertsonala politikoa dela. Baina ez genioke adierazpen horri buelta eman behar, eta ez genuke esan behar politikoa pertsonala dela. Ez, behintzat, lehentasunez

eta soilik horrela. Lehenengoen kasuan, aldiz, baliteke kontseiluetan-eta gurekin lotura duten emakume talde batzuk baino "feministagoak" izatea.

Kontua da hain garrantzitsua iruditzen zaigun presentzia hori nola gauzatu behar dugun, emakumeen eta talde feministen protagonismoa zaindu eta gordez. Agian, oraingoz, "zubiak" eraiki beharko lirateke, loturak baino gehiago. Gizon horiek espazio batzuetan egoteko garaia dela irizten diogu, indarkeria matxistaren aurkako borrokan, batez ere. Aipatu beharra dago BEAk indarkeriari buruz aurkezten duen txostenean, gizonezkoak inplikatzeko proposamen zehatzak egiten direla. Baina, bestalde, Martxoaren 8a emakumeen eguna izaten jarraitu behar duela pentsatzen dugu, eta emakumezkoenak baino ez diren espazioak gordetzen eta emakume taldeekiko loturak egiten jarraitu behar dugula.

Beste gizarte mugimendu batzuekiko loturei dagokienez, ezkerreko mugimendu klasikoekiko ekintza unitateak berreskuratzea beharrezkoa dela pentsatzen dugu: ekologistak, LGTB, antimilitarista, S.O.S, internazionalista... Horiekin, laikotasuna, eskubide ekonomiko eta sozialak, gerraren aurkakoak, antiglobalizazioa eta halako kanpainak bultzatuko genituzke. Ez dugu ahaztu behar mugimendu feministak ibilbide luzea egin duela beste borroka eta aldarrikapenak babestu eta haiekin bat egiten.

Ikusten duzuen bezala, eta amaitzeko, asko dira planteatzen ditugun galderak, eta horiek Mugimendu Feministan eztabaidatuak izan behar direla usten dugu. Izan ere, asko izan dira azken urteotan aldatu diren gauzak eta baterako estrategiak egituratu behar ditugu, indarrak bildu eta borroka feminista eta ezkerrekoa ikusgarriagoa egin eta sendotzeko.